

Joseba Elozegi, su eramalea

Argia, 1990-11-18.

Sua, Joseba Elosegik ez zuen Anoetako palkotik sua bakarrik bota; sutan zegoena bera zen!, bera zen guztia bota zen. Eta ez zuen bere buruari emandako suarekin inor erre eta hil nahi izan. Bera eskaini zen, Gernikako sua sortu zuen generalaren begien aurrean bertan, honek ikus zezan, hau konturatu zedin behin betiko bere gerrak sortu zuen sute, infernu!, ikaragarri hark herri oso bat, gorputz eta arima, erre zuela.

Gernika osoa suntsitu zuela.

Hala dio *Quiero morir por algo*, bere testamentu bezala utzi zuen liburuaren sarreran:

Gernikako sua eraman nahi dut, haren erretzailearen begietaraino.

Hau zen mezua.

Gudari gogorra izan zen Joseba Elozegi dagoeneko, hain gazte eta inoxente zela, atzetik eta abisatu gabe ("arriba las manos" esaten zuten gutxienez zineman...) gerra piztu ziotenean; halere, gogor eraso zion gaztetxo hark mendian arma handiz jantzita eraso, eta bere defentsarako tiro egin behar izan zuenean.

Ez zuen Josebak inoiz, ezta ezuste kriminal hartan ere, atzetik inor hil.

Gerrako gizonak seinalea ematen dutenean, badirudi debekaldia berez altxatzen dela, eta edonork, edonun, edozer bota dezakela!, dena libre dela...: Nafarroako sakanetan, zuloak betetzeko; Arabako lautadetan, haizea bezain libre ehiza egiteko; Gipuzkoako mendi baztar eta kanposantuetan ere pekatua libre; eta Bizkaian, sartu zirenean, lehen bonbak bezala orain tiroak, gorri, eta urdin, denak hemen tiro; tiro Bilboko kalebazarretan, ibaiertzetan, hegorik gabeko gizonak aideko txoriak bezala boteaz.

Hau zen eta gerra!

Joseba Elosegik ere izan zuen, bada, heriotza ez beste guztiak pasa eta gero, 1970an Donostiako frontoirako bere sua prestatzeko parada. Orain, gainera, bengantzarako orduak denak joak. Hor zuen Josebak orain gorrotozko bentaja uher hori prest. Nahi izan balu, barruak hori agindu balio, hainbeste gerra sufritutako gure herriaren barruak izan zezakeen bada, Anoetako frontoian zegoen su emaile Nagusia, Txit Gorena, berarekin batera akabatzeko aukera...

Baina Molak eta Francok gerra, makurkeriaz, bere hitza janez, prestatu bazuten, Joseba Elosegik zer egin zuen gogora ekartzeak lagunduko digu bere barrua neurtzen:

Bat, ez zuen inor hil nahi. Bi, sinesle zenez gero, bere buruaz beste egitea debekatuta zeukan: "Gogoan dut –dio– sobietarrak Chekoeslobakian sartzerakoan bere buruari su eman zion txeko hartaz Aita Sainduak, Paulo VI.ak, zer esan zuen: hau ez zela suizidatu, baizik eta kausa justu batengatik hil zela. Nire kasua justua deritzat. Ez du seguraski haren oihartzunik izango. Baina esan nahi dut, idealista bat naizela, iluso bat. Halere, ez dudala damurik, eta mundu honetatik destinoak egin didan bidetik joan nahi dudala".

Hara nola, gero inork ezagutzen ez duen bidetik Joseba Elosegik ez dion inori su eman, ez dion inoiz berez tirorik bota; eta orduan hil ez zenez gero, orain, eta orain ere nola bere kontzientziarekin pakean, gizonki, hil zaigun.